

Lehen Hezkuntza

HONDARTZAN ARTEA BAITA ERE!

GARAPENA

Normalean, ikasleekin hondartzetara hurbiltzen garenean, garbiketa saioak egiteko, uraren kalitatea aztertzeko, bertako bizidunak ezagutzeko, surf edo kanoetan ibiltzen ikasteko, etab. helburuz egiten dugu. Oraingoan, hala ere, zerbait ezberdina egiteko unea iritsi da: ARTEA!

Hondartzak helburu honetarako egokia den lekua direla ikusi dugu, hondarraren irudi ezagun eta ikusgarri horiek adibide gisa kontuan hartzen baditugu. Gure proposamenak hondarraz gain, urak ekarritako beste material mota batzuk erabiltzea iradokitzen du.

JARDUERA BURUTZEKO HAUEK DIRA JARRAITZEKO PAUSOAK:

Materialen bilketa:

Jarduera hau neguan egiteko aproposa ikusten dugu, izan ere, udan hondartzak garbitu egiten dituzte eta ezin izango genuke material nahikoa bildu. Beraz, hondart-

zak 'zikin' dauden momentu hori aprobetxatuz, interesgarriak ikusten ditugun materialak bilduko ditugu. Lan honetarako eskularruak erabiltzea gomendatzen da.

Une egokia da hau materialen jatorriari erreparatzeko ere: batzuk gizakiak sortutako zaborrak izango dira (plastikozko botilak, poltsak, beira zatiak...); beste batzuk aldiz, naturak sortutakoa (enbor eta adaxkak, maskorrak, algak...).

Emozioak adierazten!

Eta orain dator une dibertigarriena: buruari eragin eta, gure emozio eta ideiei bidea emanez, sortu irudi edo eskultura bat. Forma emateko hondarra ere erabil daitekeela gogoratu. Ariketa hau taldeka egitea hobe da, aberatsagoa da eta.

Erakusketa

Artelana bukatuko dugunean beste kideei aurkezteko momentua izango da. Gure lanarekin adierazi nahi izan duguna azalduko dugu eta bide batez erabilitako materialak esango dituzu.

Ekintza

HELBURUAK

- Naturak arterako ematen dituen aukeraz jabetzea
- Itsasoak ekartzen dituen materialen artean naturak edo gizakiak sortutakoa den bereiztea
- Naturak zaborrak sortzen ez dituela konturatzea

LANDUTAKO KOMPETENTZIAK

- Zientzia-, teknologia- eta osasun-kultura.
- Hizkuntza-komunikazioa.
- Gizarte eta herritartasuna.
- Giza eta arte-kultura.
- Norberaren autonomia eta ekimena

MATERIALAK:

- Gomazko eskularruak
- Zabor poltsak



Artelanaren iraunkortasuna

Hondartzari agur esan baino lehen hausnarketa bat egitea komeni da:

- Sortutako artelanarekin zer egin behar dugu?. Argi dago bertan utzi beharko dugula eta denborarekin desegiten joango dela baina, material guztiak desagertuko al dira? Denbora berean? Eta desegin bitartean eta ondoren haiekin zer gerta daiteke? Gure erantzunen arabera erabaki beharko dugu zer egin artelanaren materialekin.*
- Enbor zati, adaxka, maskor, etab. moduko materialak zaborrak al dira? Bertan uzten baditugu zer gertatuko da? Naturak berak bere zikloan sartuko al ditu?
- Bukatzeko, oroigarri moduan argazkia egitea eta ikastetxean eskultura argazkien erakusketa antolatzea proposatzen dizuegu.

**Oharra: plastiko botila, poltsa, beira etab. moduko hondakinak bertan ez uztea komeni da.*

